

# Ai! Mari; Ai! Jose

Abendu santu honetan  
Kristoren jaiotzia;  
alegora begi mundua,  
oraintze da denporia.  
Ai! Mari; ai! Jose  
José María  
Ai! Mari; ai! José.

Gabon hilean sartzeaz hasten omen ziren honako kanta hauekin, gure amak bere aita-gandik jasoa zueniz. Otxandion gordetzen omen zen ohitura hori eta gurasoengandik zetorkionez Araba aldean hedatzen dira bere sustriak. Hala ere, azterketa zehatzago batean sartuko bagina laster oharituko gara kanta hoi zabalkunde Araba eta Bizkaian handia izan da aintzinako denboretan. Aspaldi Manuel Lekuonak Gernikaldean jaso zituen **Marijesiak** (Anuario de "Eusko Folklore", XIII, 1933, 37 orr.) direlakoan mota berekoak dira. Gerogago José Antonio Arana Martijak egin ditu beste zenbait bilketak.

Amari jasoa dizkiodanetan, era hortako ez dira asko. Bertako irudi eta agerpenak itxura zaharra dute, eta ondorean ikusiko dugunez XVII menderaio doaz.

Berto asko omen ziren, baina gogoratzen dituenen artean, arestian jarri dutenarek gainera beste lau baizik ez ditu gogoratzen, bere errepika edo euskaritxo jakin horrekin:

Bilotsik jaoarren  
ez zara zu pobria  
zeruen josirik dago  
Zuretako erropia.  
Ai! Mari; ai! Jose  
José María  
Ai! Mari; ai! Jose.  
Zein izango ete da  
haretzen josia?  
Errege don Felipen  
alaba lindia.  
Ai! Mari; ai! Jose...

Errege Feliperen aipamenak kantaren noiztikako argi izpi bat ematen ditu. Felipe V a zen izen hortakoen azken erregea. Bera baltiz, XVIII. mendearen lehen partekotzat jarri genezake. Baina gure artean hain hots handia izan zuen Felipe IV.aren alabagatik izango zela nik uste. Maria Teresa infantea, Frantsiako Luis XIV.ekin 1659an ezkontzerako Pirineoetako Bakea egin zen eta gertakizun haiek arrakasta handia izan zuten Euskalerrietan. R.M. Azkue zenaren **Cancionero Popular vasco**-ren bigarren argitalpenari egin nizioan oharretan kanta honen zabalkunde-koa ere aipatzen nuen (ikus bigarren adizioaren 2. tomoko E-32 orrialdean erantsitako nere ohar hura). Marijesiekin zer ikusirik duenen artean 966, 968, 969, 970 eta 971 dira Azkueen bildumazko kantategian.

Dena dela, kanta ahuk gipuzkeraren XVII. mendekoak, zaharrak dira, seguru asko ikutu mendeakoa.

Gainera, Gabonetako antzirudi bezala erabiliak izango ziren. Antzirudi horietan herriak parte harturik, kalez kale kantatuak izango ziren noski.

Berto asko omen ziren, baina gure ama ez da oroitzen besteekin. Azken biak atez ate ostatu bila zebiltzaneko irudidudan dira.

Hor goien etxe bat  
jo deigun atia,  
irigi balegua  
Jospe neuria.  
Ai! Mari; ai! José....  
Hor goien etxe bat,  
jo deigun kabua,  
ia jausirik dago  
zahararren puruaz.  
Ai! Mari; ai! José...

Baina, argi dago hor ez zirela bukatzen eta Azkue, Lekuonak, Aranak eta bestek bildu-

takoekin osatu behar dira; era berean, hauek berea osatzen lagunduko dutenez. Eta, kantaren osagarria izatez gainera hedakundearen lekukotasuna eskaintzen dute. **Marijesia** motako kantak, hortik ikus Gernikaldean ez ezik Araba ifarraldean eta behar bada Gipuzkoan bertan ere zabaldutak zirela. Gainera, argi dago bertolarrizaren moda indartu zen tokietan urri direla kopa zahar eta erromantezak.

Dena dela, Gabon gabeko afalordua helitzeaz mahaian jartzerakoan, beste honako hau kantatzen omen zuten ospakizunen oriarri:

Familiaz batera  
jarri nintzan mahaian,  
Gabon zelebratzeko  
alegrerantzian.

Lelegoko traguian,  
hiru txiki ziran;  
hotz gogorra egonarren  
bikoz jarri nintzan.

Eta, ondorean, euskaritxo edo letoa errepikatuz, doinu bizkortagoaz:

Heldu dok Gabon mutilak,  
atar a ardan zaharra,  
jan deigun meza ostein  
kapioren izarra.  
Jokin Anton, dantzan ein deigun,  
besapeko kitarra,  
indar gehiagoz goiazak  
jai ostein gerrara.

Juan SAN MARTIN

Las presentes canciones navideñas pertenecen a la variedad de las **Marijesiak**, muy extendidas por la zona de Guernica, recopiladas y publicadas por don Manuel Lekuona en 1933 en el Anuario de "Eusko-Folklore" y estudiadas, con algunas aportaciones más, por José

Antonio Arana Martija en la revista **Dantariak** (en el número correspondiente a septiembre de 1979). Pero, éstas, tienen la particularidad de pertenecer a Ochandiano y su área limítrofe de Alava, Villarreal y valle de Cipitua, en donde era oriundo mi abuelo materno y mi madre aún las recuerda aprendidas de su propia madre.

La hija del rey Felipe que se cita en las mismas debe ser la Infanta María Teresa cuyos desposorios con Luis XIV en la noche del Bidasoa, en 1659, con la Paz de los Pireneos, tuvieron gran resonancia en el País Vasco. Pero, además, en algunas coplas recogidas guarda relación con las coplas recogidas por Nicolás de Zabal (1647-1694) y José de Lezámiz (1654-1700), ambos durangueses. El primero publicó en San Sebastián su **Doctrina Cristiana en Basqueño** (1691), del que no se conserva ningún ejemplar, y el segundo publicó en México su **Viage del Apóstol Santiago** (1699), donde reproduce algunas de las mencionadas coplas navideñas. Por ello, estas canciones pueden remontarse al siglo XVII.

A las mismas podemos asociar otras navideñas recogidas por Azkue y publicadas en el **Cancionero popular vasco**, concretamente las que van desde la canción número 966 hasta la 971, con la exclusión de la número 967.

Por sus características han podido ser utilizadas para representaciones del nacimiento del Señor.

Es evidente que faltan algunas estrofas, pero a su vez pueden ayudar a completar e integrar otros fragmentos que se han recopilado sin perderdamente en la parte occidental del País Vasco.

Las dos últimas estrofas pertenecen a un género literario y que están destinadas al **baile de Nochebuena**.

# Laburpen gisa

Indar gutxi geratzen zaio urte zaharri berriari ongi etorria emateko gertutzen ari gara. Hiltzen ari zaigu denetarik berriak erriki dizkigen urtea. Era guztietako albisteak eskaini ditu, onak eta txarrak. Urte garrantzitsua politikian. Behar bada, datozen urteetan izango den egokero ataria. Politik indarrek markatutako hilotziki ibili behar dugu gizarte honetan -bizitzaren legea, noski- eta eskal kausarako (kulturalarago) nolabait prestatzen ari garen azpigiaturak ez dezala etorkizunaren otoporik aurki opa nahi diot urte berriari, iges egiten duenari -zergatik ez?- eskerrak ematen dizkiodan batera. Aurrera egin dugu deritzait eta marxta honetan jarraitzek onorio onik ekarriko dio gure Herriari, honengan -kulturraren bidez- bizi ahal izateko beharrezko den kontzientzia zuzperzen ari dela adieraziko baitu. Nolanahi ere, ez dezagu ahantzi bidea arantzez beterik dugunik. Eta sasi hoi gaitzetik askatu behar da gure Herria Herri izaten jarraituko bada. Duela gutxi oraindik zion Josemari Satrustegi euskaltzainak gure berriaren etorkizunari buruz, "euskararik gabe gurea Herri bat izango da, baina ez Euskal Herria". Edozein euskaldunek izenpetu beharko lukeen esatera dugu aurrekoa.

Urte berria datorrela zaharrak urtebeteko ahaleginak oro eramatzen dituz, gurekin oroitza-pena eta -agian- haien fruituren bat geratzen delarik. Eta urteko azken artikulua honetan hirurehun eta hirurogeitabos egunetan zehar Araban izandako zenbait kultur ekintza aipatu nahi nuke. Ez dira, jakina, denak egongo. Eta irakurleak hutsunea barkatuko didala uste dut, hain lerro gutxiain ezin daitekeela aipamen guztiak egin ulertuko duela-koari nagoelarik.

Aurten "Voluntaria Entrega" deritzan mugari historikoaren 650 urtebetetzea ospatu da Araban. "Arriagako Itunbena. 650 Urteroko" baitaiztu zuten arriarrek ospakizun hau. Garaiko Arriagako Kofradiek bere jaurgoa eskaini e zion Gaztelako erregeri, inakulo bortaia berik. Hauxe da, behinik ere, jolatu batzuek diotena eta heuren eritizia errepertatu behar dugu, nahiz eta historia beste era batez idatzi beharko litzatekeela pentsatu. Baina ez dut uste eztabaidatu hasiatek merezi duenik. Eta, neri dagokidanez, ustea bere egunearr lerro hauen bitartez eman nuen ez gero, "quieto parado".

"Arriagako Itunbena"-ren inguruan probintzia osoan -eta batez ere hiriburuan- zenbait ekintza eratu da eta garrantzitsuenak -dudarik gabe- "La Formación de Alava" (titulupean antolatutako Histori Ikasketetako

Biltzarra da. Arabako Foru Aldundiak, Euskal Herriko Filologia eta Historia Fakultatearekin batera, Irailaren 27.rik Urriaren 2 arte gerturiko Batzar Nagusi honetan probintziaren sorkunde aztertu zituen, ikuspuntu batzuetatik begiraturat. Hogetamaika ponentzi eta berrogeitamazortzi komunikatu izan ziren aurkeztuak, aintzinako Arabatik lehen karlistadartekoa ikertzen zelarik. Biltzarerra maila handikoko ikerle azaldu zen. Horra hor, esaterako, Mixelena, Caro Baroja, García Legarreta, Monreal, Villimer..., eta fruituak, guztion eritiz, ezin hobetoagoak izan zirela dirudi. Amaieran eskuhartzaileek izenpeturiko txosten batetan Biltzarra instituzional dabilas eskatzen da. Gebara diputadu nagusiaren amaiera-eguneko hitzetatik etorkizunerako bidea idekirik dagoela uler daiteke, "guztiz artean lanean jarraitu ahal izateko".

Baia Irailaren ere, 19an, "Araba Euskaraz '82" izeneko ospakizuna izan zen Gasteizen, "Irakaskuntza Publikoa; euskara denon izat" (titulupean). Euskaldunen hizkuntza arabar guztiona bilakatzeko laguntzeko, Araban azterketa soziolingüistiko bat egin ahal izateko beharrezko dirua lortu nahi zen jai honen bidez. Euskara arabarren hizkuntza izan dela, dela eta izango dela erakutsi nahi zuten antolatzaileek eta, hein handi batetan, helburua erdietsi dutela esan behar da.

Gure hizkuntzarekin jarraituz, urtean zehar zenbait albiste erakarri dute gure harrera. Diputazioak eta ikastola batzuetako guraso elkarteek daroaten tirabirik ez du oraindik guztion gustora irtenberik izan. Arabako lehen erakundeak zenbait bider aipatu du probintzia osoa euskalduntzeko-ahaleginetan diharduela eta ihardungo duela. Eta baitezpen hau, datorren bezala hartu behar dela deritzait. Denok dakigu zernolako jokorik eman dezaketen gaurregun Diputazioek eta Arabako bidean dagoela esatera ausartuko nintzaitek. Gehiagorik egin dezakeak? Noski baiez. Baina gaitzak aldatuz doazela bistan dago. Eta ez dut arazo honetan gehiago sakondu nahi, inork likidatzailetzat har ez nazan...

Euskarak beste zenbait albiste eskaini ditu aurten Araban: Udako Nazioarteko Euskal Ikastaroa, mundu guztiko eskuhartzaileerik; Euskaltzaindiaren bulego berrien inaugurapena; "Mirotoz" rok taldearen lehen diskua "Harrikia bildako mixelena" (titulupean); Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen Gorka Knorr-en sarrera...

Irailarekin jarraitzen dugu eta hil horretan ospaturiko "Nazioarteko Abesbatzen II Astea" aipatu behar dela uste dut. Zortzi talde izan

ziren Gasteiz eta probintziako zenbait herrietan heuren saioak eskaini zituztenak: Bulgaria, Egipto, Rumania, Hungria, Polonia, Rusia, Venezuela eta Yugoslavia Estatuetatik iritsi ziren taldeak eta ondorio ederrak kontabilizatu dituzte Arabako Aurrezki Kutxa-koek, Astearen antolatzaileak, mundu osoa hedatu baita Aste honen ospea eta hirugarren edizioa zehazteke dagoela hainbat abesbatzak izena eskainia dute, datorren urtean eskuhartu ahal izateko. Bigarrenaren fruitu bezala, host mila diska eta berrogei mila kasetak atera omen da Astearen ihardundako taldeen abestiez osatua.

Bestalde, eta gaiarekin zerikusirik duenez gero, esan dezadan arestian Arabako Abesbatzen Elkartearen sortu dela, probintziako taldeen ekintzak zuzendu eta koordinatzeko.

Omenaldien kapituluaren ezin ditut aipatu barik utzi Mikelak Portilla ikerlari eta Manuel Iradier Abesbatzari Gasteizko herriak eskainitakoak. Lehenengoa Gasteizko Alaba Kutuna izan zen izendatua Abuztuaren 5ean, "gure herriaren arte-munduan mailarik handienak lortu dituelako". Manuel Iradier abesbatzari, berriz, Hiriko Zilarrezko Domina eman zitzaion, "Arabako musika munduan zehar hobetoagor urtean erakutsi duelako".

Aurreko artikulua batetan azaltzen nuen bezala, aurten beste mendehurren bat ospatu da Araban, euskal idazle batena, hain zuzen, Pedro I. Barria izan da, hilak 18, Aramaion euskaldunen gorazarrea jaso duena; hirurehun urte betetzen baita Arabako herri hartan jaiotako. Euskal literaturain hizki handiaz du bere izena idatziara aramaitarrak.

Eta, lagunok, besterik ez. Ba dakit idazmakinarek tekletan gauza asko uzten dudana. Zer egingo dut, bada...? Eskerrak eskumeari, Araban kultur mugimendua polita nabari daiteke. Hauxe da garrantzitsuen. Nire moduko idazle baten asteroko kronikan agertzeak ez dio -ene uste apalaren- meritu gehiagorik ematen "zori" hori izan duenari. Benetan inportanteena egindakoa eta egilea dira; ez epailea edota -kasu honetan bezala- ekintza honen berriemaitela. Urte berri on, guztioi.

Josemari VELEZ DE MENDIZABAL

Con la certeza de que es imposible en tan poco espacio detallar todas y cada una de las actividades culturales que durante el año que se nos va, han sido programadas en Alava, me permito hacer un breve resumen de aquellas que, en mi opinión, han acaparado la atención por su importancia y significado. Confió en que nadie se moleste si es que "la tuya" no es objeto de mención en este corto recorrido. Por

supuesto, no ha sido mi intención relegar intencionadamente a nadie.

Pienso que el hecho más destacable en el aspecto cultural alavés durante el año 1982, ha sido la celebración del 650 aniversario del denominado Pacto de Arriaga, más conocido por Voluntaria Entrega. No es cuestión de entrar en polémica sobre lo acertado o no de esta última denominación, es decir, si la **Confederación de Arriaga** entregó en 1232 el señorío al rey de Castilla en perfecto uso de su voluntad o, por el contrario, se vio obligado a tomar semejante decisión. Creo que lo verdaderamente importante en el caso que nos ocupa es que durante los 650 años se ha organizado por la Diputación Foral, en colaboración con la Facultad de Filología, Geografía e Historia del País Vasco, el I Congreso de Estudios Históricos, bajo el lema "La formación de Alava"; que ha reunido a un gran número de estudiosos del tema, los investigadores de la talla de Mixelena, Caro Baroja, García Legarreta, Monreal, Villimer..., El éxito obtenido ha motivado el que se haya propuesto por los mismos participantes la institucionalización del Congreso para años sucesivos.

Uno de los gritos reivindicativos que con más fuerza se dejan oír en la provincia, es el relacionado con la lengua nacional vasca, que motivó la manifestación más espectacular que tuvo lugar en Alava. Por otro lado, al hablar de nuestra lingüística no podemos olvidar ese largo diálogo que mantiene la Diputación de Alava con los alumnos de Ikastolas, sobre la importancia del determinado sistema de enseñanza en euskera, que se ha ido resolviendo poco a poco. Confiemos en que todo se arregle rápidamente para ver de hacer posible, entre todos, el deseo de la primera entidad provincial vasca de reeuskaldunización de Alava. En esta conexión con el vascuence, están las actividades sobre el Curso Internacional de la Lengua Vasca; la inauguración de la Lengua Vasca en los locales de la Real Academia de la Lengua Vasca; "Miztrindia"; el primer disco del grupo "Kera '82"; la entrada de Gorka Knorr en la RSBAP...

Otra de las cosas culturales más altas del año 1982 se consiguió en la II Semana Cultural, donde participaron ocho coros de otros países de Europa y América. Del magnífico resultado obtenido no puede dar cuenta más que ya está prácticamente preparada la edición del próximo septiembre.